

Euskararen Kontseilu Sektoriala

Ohiko Bilkura

Data eta lekua	2024ko azaroaren 11n Tokiko Gobernu Batzarraren aretoa (Udaletxea, Ijentea kalea)
Hasiera eta amaiera ordua:	18:00 – 20:30

BERTARATUAK:

Talde politikoak:

LEHENDAKARITZA: Jon Insausti, Kulturako, Euskarako eta Turismoko zinegotzi ordezkaria

Miren Azkarate: EAJ

Iñaki Gabarain: PSE-EE

Itziar Iturri: EH Bildu

Vanessa Vélez de Pablos: PP

Sabin Zubiri: ELKARREKIN DONOSTIA

Elkarteak, Hiritarrak eta Gizarte-ospe bereziko pertsona edo kolektiboak:

HEZTEN

BAGERA ELKARTEA

BATZEN

BIZARRAIN

San Sebastián SHOPS

LABORAL KUTXA

KUTXABANK

IRUTXULOKO HITZA

GIPUZKOAKO OSTALARITZA ELKARTEA

Euskaltzaleen Topagunea

Gipuzkoako Foru Aldundia: Joxean Amundarain (Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusiko Atalburua)

Euskara Zerbitzuko langileak:

Eduarne Otamendi(Euskara Zerbitzuaren burua)

Alex Aisa (Euskara Zerbitzuko Hirirako Hizkuntza Normalizaziorako Atalburua)

Idazkaria: Aines Murillo(Euskara Zerbitzuko Teknikaria)

Partaidetza Zerbitzuko langilea: Iñaki Otamendi (Partaidetza Zerbitzuko teknikaria)

Farapi kooperatibako kide bat

EZ DIRA BERTARATU:

AEK (ezin etorria adierazi du)

Gai zerrendarekin hasi baino lehenago Partaidetza Zerbitzuko Iñaki Otamendi Teknikariak azaldu du Udaleko 7 kontseilu sektorialetan ikerketa bat sustatzen ari direla berdintasuna ardatz hartuta.

Partaidetza Zerbitzuak Farapi kooperatiba kontratatu du azterketa hori egiteko, xede honekin: Euskara, Gizarte Ekintza, Ingurumena, Mugikortasuna, Berdintasuna, Lankidetzeta eta Memoria Historikoa kontseiluetan gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren egoera aztertzea. Horretarako, azterketa dokumentala egingo da, kontseiluetako parte hartzaileen iritzia jasoko da, inkestak eta talde elkarriketak egingo dira, aktak aztertu...eta kontseiluetan behaketak egingo dira

Gaurko Euskara kontseiluaren saiora Farapi kooperatibako Oihane Beñaran ikertzailea etorri da behaketa egiteko. Saioan zehar gizon eta emakumeen asistentziak, hitzartzeak eta hauen iraupenak behatuko ditu, modu anonimoan eta izenarekin identifikatu gabe.

Ikerketa osoa amaitu eta gero, informazio hori guztia txosten batean jasoko da, Kontseilu bakoitzari buruzko laburpenak egingo dira, eta hobekuntza-estrategiak proposatuko dira.

1. 2024ko ekainaren 25eko bileraren akta onartzea

Bileraren akta aho batez onartu da.

Ondoren, bilera deiarekin batera bidalitako deialdiaren aurkezpen laburra egin du lehendakariak.

2. Añorga Arigune proiektuaren aurkezpena

Bilera deiarekin batera, "Gipuzkoa Arigune" proiektuari buruzko dokumentazioa bidali zen eta proiektu horren baitan "Añorga Arigune" proiektu pilotua ari da bideratzen Añorgan. Horren aurkezpena egiteko Joxean Amundarain Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza Berdintasunerako Zuzendaritza Nagusiko atalburua eta Mikel Ozaita Euskaltzaleen Topaguneko kidea izan dira Euskararen Kontseilu Sektorialaren bileran.

GFAko ordezkariak adierazi du "Gipuzkoa Arigune" proiektua esperimentazioa abiatzeko oinarritzko proposamena 2023ko uztailekoa dela eta Euskaltzaleen Topaguneak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak, Soziolinguistika Klusterrarekin eta Badalabekin batera, bultzatu dutela egitasmoa, eta Gipuzkoa Arigune lantaldea eratu dutela.

Etorkizuneko ikuspegi bat da, non edonork, edonorekin eta edonoiz euskaraz eroso egingo duen, eta euskal gizarte kohesionatuago bat bizitzeko bide eman lezakeen. Kultura berri bat sortzea du helburu. Hiztunok euskaraz eroso aritzea erraztuko duten eremuak eta espazioak irabazteak garrantzi estrategikoa dauka. Ulermena zein erabilera jomugan, hiztun bakoitzak urrats bat egitea.

"Gipuzkoa Arigune" proiektuaren barruan kokatzen da "Añorga Arigune" eta jarraian topaguneko ordezkariak horren aurkezpena egin du.

Proiektuak lau oinarri ditu: ikuspegi komunitarioa, antolaketa kolektiboa, adostasun zabalak eta metodologia berritzaileak.

Metodologia berritzaile horien artean nabarmentzekoa da Aldahitz metodologia non gakoak diren Eusle figura, ulerrizketak eta uler-saioak.

Lehenengo fasean, 2500 biztanletik beherako hainbat udalerritan landuko dute egitasmoa, honenbestez, herri txikien ezaugarriak aintzat hartuz planteatuko dute prozesua, eta herri handiagoetarako zein bestelako esperientzia espezifikoetarako berariaz egokitu behar da. Hiru fase izango ditu: abiatu, garatu eta iraunkortu.

1. Abiatu fasean:

Prozesuko faserik garrantzitsuenak da. Udalerrian zein auzoan gaiarekiko interesa edo beharra ba ote dagoen, eta esperientzia abiatzeko baldintza edo bermeak ba ote dauden argitu behar da. Horixe egin berri da Añorgan.

Barne bilera: Gipuzkoa Arigune lantaldearen eta udala (Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzua) eta hanka sozialaren (Bagera) arteko bilera bat egin da. Egitasmoa ezagutaraztea eta udalerrian esperientzia abiatzeko interesik ba ote dagoen jakitea izango dira bileraren helburu nagusiak. Herriari begirako aurkezpena. Ahalik eta eragile eta herritar sektore gehienen parte hartzea bilatzen da.

Urrats hau dagoeneko egina dago Añorgan. Udalak eta Bagerak Gipuzkoa Arigune lantaldearekin batera aurrera egitea erabaki zuten eta aňorgatarren arteko bilerak eta aurkezpen orokorra egin eta gero, proiektu pilotuarekin aurrera egitea erabaki zen.

Behin aurkezpen orokorra eginda (80tik gora aňorgatarrek hartu zuten parte) esperientziarekin aurrera egitea erabaki zen. Esperientzia abiatzeko adostasuna lortuta, auzo batzordea eratu da eta azterketa komunitarioa egiten ari dira une honetan.

Abiatu fasea, beraz, oso aurreratua dago.

2. Garapen fasea (auzora zabaltzea):

Behin azterketa komunitarioa eginda eta beharrak eta egitekoak identifikatuta, ondoko esku-hartzeak aurreikusten dira:

- Hiztunak prestatu: uler saioak, ahalduztze tailerrak,....
- Herritarren arteko bilguneak sortu: mintzapraktika
- Herritarren arteko interakzio handiko gune eta uneetan eragin.

Azterketa komunitarioan identifikatutako erroñkei erantzungo zaie. Añorgan estrategiko izan litezkeen gune eta uneetan eraginez.

3. Iraunkortze fasea:

Fase honen erroñka abian dauden tresna eta dinamika egitura publiko eta sozialen bidez sistematizatzea eta iraunkortzea izango litzateke.

Elkarrekin Donostia taldeko Ordezkariek ekimena txalogarria dela esan du eta proiektuak abian jarri nahi dituen saio horietatik sortzen diren gaitasunen aitortza egitea dela beraien erreibindikazioa.

3. Euskara Zerbitzuaren 2025eko aurrekontuen proposamena

Kulturako, Euskarako eta Turismoko zinegotzi ordezkariak Euskara Zerbitzuaren 2025erako aurrekontu proposamena azaldu du.

Hauek dira 2025eko aurrekontu proposamenaren zenbaki nagusiak:

KONTZEPTUA	EUSKARA	ITZULPENA	GUZTIRA
1. PERTSONAL GASTUA	1.226.613	302.187	1.528.800
2. GASTU ARRUNTAK	1.068.293	109.169	1.177.462
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	813.203	0	813.203
GUZTIRA	3.108.109	411.356	3.519.465

Atalka begiratuta, berriz, ondoko azalpena eman du.

EUSKARA – aurrekontu osoa	3.108.109
Lehen kapitulua	1.226.613
Gastu orokorrak	83.862
Hiriko hizkuntza normalizazioa	1.772.954
Udaleko hizkuntza normalizazioa	24.680
ITZULPENA – aurrekontu osoa	411.356
Lehen kapitulua	302.187
Bigarren kapitulua	109.169
EUSKARA + ITZULPENA aurrekontu osoa	3.519.465

Azalpenetan, ondoko aurrekontu sailak azpimarratu ditu:

Bi programetako lehen kapituluko alaketak soldaten eguneratzeek eragiten dituzte.

Bestelakoan, oro har, ez dago igoyerarik 2024ko aurrekontuarekiko. Zenbait doikuntza egin dira kontusail batzuetan gorantz edo beherantz.

Udaleko hizkuntza normalizazioaren atalean jaitciera txiki bat eman da hirirako hizkuntza normalizazioaren mesedetan. Izan ere, 2023 eta 2024 urteak Euskararen Erabilera Normalizatzeko VII plangintza aldiaren prestaketa eta onarpen urteak izan dira eta kanpoko aholkularitzaren laguntza izan dugu bi urte horietan plana egiteko.

2025ean berriz, aipatu planaren garapena eta exekuzioa, nagusiki, Euskara Zerbitzuaren teknikarien bitartez egingo da eta, beraz, ez da kanpoko aholkularitzarik aurreikusten baldin eta gauza puntualen baterako ez bada.

Aldiz, 2025ean datozen urteetarako Donostiako Euskararen Plan Orokorra diseinatu eta onartu beharko da eta, horretarako, besteak beste, aholkularitza eta laguntza tekniko kontratatzea aurreikusten da. Eta hori, noski, hirirako hizkuntza normalizazioan aurreikusi da.

Horrez gain, nabarmentzekoa da azken urteetan igotzen ari den kontu saila eta 2025erako zerbait igotzea aurreikusi duguna: laugarren kapituluko Euskaltegien dirulaguntzak. Xede bereziak dituzten ikastaro kopurua gora egiten ari da urtez-urte eta lehentasunezko gaitzat jotzen dugu.

4. 2024ko udako jardueren balorazioa

Hiriko Hizkuntza Normalkuntzarako atalburuak, Euskara Zerbitzuak antolatutako udako ondoko jardueren balorazioa azaldu du: Oporretan Euskaraz, Aisikasi, Udan Haurrak Mintzajolasean, 16-18 urteko gazteentzako euskara ikastaroak.

Informazioa aldeaz aurretik bidali zaie Euskararen Kontseilu Sektorialeko kide guztiei.

EAJ taldearen ordezkariak zehaztu du eskolak eta gizarteak dituen beharrei erantzuten zaiela horrelako jarduerekin. Eta galdetu du ea badakigun zein eskolatatik datozen eskaerak.

Hiriko Hizkuntza Normalkuntzarako atalburuak erantzun dio hainbat eskoletatik etortzen direla eskaerak eta egiaztatzen ari direla behar horiek gero eta berariazkoagoak direla, beraz, erantzunak ere behar zehatz horietara gero eta egokituagoak izan behar dutela.

BAGERAko ordezkariak, gaineratu du errealitatea dela gero eta etorri berri gehiago daudela eta haien beharrei erantzun behar zaiela euskara-maila berera ondo iristeko. Errealitatearen irakurketa egin behar da eta behar horri erantzun.

Atalburuak zehaztu du hala dela baina, eskumenak-eskumen, Udalak beti ezin duela dugula hezkuntza-sisteman eragin.

EHBilduko ordezkariak gaineratu du ikasleen mugikortasuna handia dela, hau da, ikastetxeetatik sartu-irtena etengabea dela. Ikastetxeek ikasle etorri berri asko hartzen dituzte baina horietako asko epe laburrean beste herrialde batzuetara joaten direla.

5. Euskararen Egunaren eta Euskaraldiaren inguruko informazioa

Hiriko Hizkuntza Normalkuntzako atalburuak Euskaraldiari eta Euskararen Nazioarteko Egunari buruzko informazioarekin jarraitu du, orain arte horien inguruan egindako guztia aipatuz.

Bileraren deiarekin batera bidali zaie Euskararen Kontseilu Sektorialeko kide guztiei bi egitasmo hauen inguruko informazioa.

Elkarrekin Donostiak taldeko kideak galdetu du ea zer den "Hamaikakoa", eta Euskara Zerbitzuko buruak argitu dio "Euskaraldia" hitza duten hamaika letretatik datorrela. Euskaraldiarekin konprometitutako 11 pertsona ezagun izendatzen direla ekimenari ikusgarritasuna emateko.

6. Donostiako Euskararen Plan Orokorra berritzeko urratsak eta asmoak

Aurtengo urtean bukatuko da azken 5 urteetan Donostiako Udalak hizkuntza politikan hirira begira oinarri eta gidari izan duen plangintzaren, Donostiako Euskararen Plan Orokorren (2020-2024), indarraldia.

Beraz, datozen urteetarako gidari izango den marko estrategikoaren edo planaren prestaketa lanean hasia da Euskara Zerbitzua. Lanketak izango dituen urratsak eta aurreikuspenak azalduz informazioa bidali zitzaizen kontseilukideei bilera deiarekin batera eta dokumentazio horren inguruko azalpenak eman ditu Euskara zerbitzuaren buruak.

PSEko ordezkariak galdetu du 10 urteko plana denboran luzeegia ez ote den.

Euskara Zerbitzuko buruak adierazi du asmoa ez dela 10 urteko plana egitea marko estrategiko bat marraztea baizik. Gero, esate baterako, urtez-urteko kudeaketa planetan edo bost urteko bi planetan gauzatuko dena.

EAJko ordezkariak esan du interesgarria dela hamar urterako hausnarketa egitea. Esparru orokorra izatea eta urtez urteko kudeaketa-plana egitea.

BIZARRAINeko ordezkariak gaineratu du Ekialdeko Barrutia marko horretan nola txertatu aztertu behar dela. Barrutiaren berezitasunak eta beharrak kontuan hartu behar direla.

Horrela aurreikusi dela erantzun dio Euskara Zerbitzuaren buruak.

Horrez gain, HEZTENeko ordezkariak gaineratu du markoari luzera begiratu behar diogula, 10 urteko errealtatea zein izango den kontuan hartuta.

Bukatzeko Euskara Zerbitzuaren buruak esan du une honetan ikerketa bat abian dela, Euskara Zerbitzuak eskatuta, ikuspuntu demografiko eta demolinguistiko batetik datozen urteetako Donostiako joerak aztertzeko.

7. Euskararen ordenantzaren betetze/ez betetzea

EHBilduko ordezkariak proposatutako gaia izanik, berari eman dio hitza lehendakariak.

EHBilduko ordezkariak galdetu du nola kontrola daitekeen euskararen ordenantza betetzen dela. Hirian zehar egiten diren jarduera askok eta askok ez dute ordenantza hori betetzen eta sistemaren bat abian jarri beharko litzatekeela dio jarduera hauen hizkuntzaren erabileraren jarraipena egiteko eta ordenantza betetzen ez bada, behar diren neurriak hartzeko.

Euskara Zerbitzuaren buruaren esanetan, Donostiako Udalaren eta administrazio askoren kezka eta ardura da gai hau. Esate baterako, aisialdian euskararen erabilera zenbaterainokoa den neurtzeko tresna bat garatu du Eusko Jaurlaritzak eta gainerako administrazioen esku jarri du. Baina Udalera begira, Zerbitzuaren buruak adierazi duenez, Donostiako Sustapenak egiten duen lan-eskaintzaren bitartez kontratatutako langile bat ari da Euskara Zerbitzuan gai hau lantzen. Donostiako euskararen ordenantza eta Udalak onartuak dituen hizkuntza irizpideen betetze-maila neurtzeko sistema bat planteatzea eskatu zaio eta behaketa bidez, lagin bidez eta abar proba pilotu batzuk abian jartzea izango litzateke helburua. Era berean, Udaltzaingoaren Zerbitzuak badu udal ordenantzen betetzea bermatzeko kontrol-unitate bat, UCOM, eta interesgarria litzateke unitate hau euskararen ordenantzaren betetze-mailaz ere arduratzea.

8. Norberak leharkeena

BATZENeko ordezkariak mahaigaineratu du *Gastronomika* kongresuak jarraitzen duela gaztelania lehenesten, bai urteroko ferian, bai bere aldizkarian. Eta azkenean herriak hori da ikusten duena. Plan berriari begira, euskararen erabilera gehiago bultzatzea proposatu du.

Hezteneko ordezkariak gaineratu du behaketa hori egiteko tresnaren bat sor litekeela.

Lehendakariak argitu die udalak "herritarren postontzia" duela, edozein zalantza, kontsulta eta kexa bideratzeko.

Bestalde, Batzeneko ordezkariak azalpenak eskatu dizkio Euskara Zerbitzuari, izan ere, gaur egun kopia ezkutuan bidaltzen dizkie kontseiluko kideei posta elektronikoak bileretarako deialdiekin, dokumentuekin, aktekin eta abarrekin, lehen kopia irekian egiten baitzen hartzaileen helbideekin.

Euskara Zerbitzuko buruak argitu dio datuak babesteko legea bete nahi dela, eta kontsulta bat egin zitzaiola Udaleko informatika sailari horrelako kasuetarako udal tresnarik ba ote dagoen galdetzeko. Une honetan ez dagoela foro gisa funtzionatzen duen sistemarik edo informazioa kudeatzen duenik. Beraz, oraingoz, denen arteko komunikazioa Euskara Zerbitzuko teknikarien bitartez egin ahal izango dela.

Amaitzeko, lehendakariak bertaratutakoei jakinarazi die datorren urterako bilera-deialdiaren proposamena aktarekin batera bidaliko dela.

Besterik ezean, bukatutzat eman du bilera lehendakariak 20:15ean.